

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1623

329/2016 EBAZPENA, apirilaren 4koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia-rena, Alberto Manzano Ramírez jauna Araba Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari mediko izendatu eta zerbitzu berezietan deklaratzekoa.

Araba Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari medikoaren lanpostua betetzeko deialdia aztertu da; deialdi hori Zuzendaritza Nagusi honen urtarrilaren 25eko 62/2016 Ebazpenaren bitartez egin zen, eta 2016ko otsailaren 10eko EHAA n argitaratu (27. zenbakia).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarrak aurkeztu dituen agiriak aztertu dira, baita bere baldintza profesionalak curriculum vitaean jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak aztertuta, ikusi da Alberto Manzano Ramírez jauna deialdiko lanposturako egokia dela eta bertan jarduteko behar bezalako trebakuntza duela.

Alberto Manzano Ramírez jauna, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko langile finkoa, Araba Erakunde Sanitario Integratuko Medikuntza Intentsiboko Fakultatibo Espezialista Mediko gisako lanpostu funtzionalaren 860. ordena-zenbakiko plazaren titularra, Araba Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari medikoaren lanpostua betetzeko izendatu da.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikuluan xedatutakoarekin bat, ofizioz deklaratu beharko da Osakidetzako langile finkoak zerbitzu berezietan daudela, erakunde publiko horretako zuzendaritza-karguren bat betetzeko hautatuak badira.

Hori guztia dela-eta, Zuzendaritza Nagusi honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Alberto Manzano Ramírez jauna Araba Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari mediko izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen honek 2016ko apirilaren 4tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Alberto Manzano Ramírez jauna zerbitzu berezietan deklaratzeko, izendatzen den egunetik aurrera.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko apirilaren 4a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.